



JONE MIREN HERNÁNDEZ

EKAINAK 19

Transmisio kontzeptuan eragiten duten hainbat elementu

Transmisioaren kontzeptuak badu jada tradizio bat gurean. 80/90. hamarkadan burutu ziren EAEan horren inguruko lehenengo ikerketak. Gerotik eztabaida ugari izan dira nozio horri lotutako esanahien, zein praktiken inguruan. Saioaren hasieran transmisio kontzeptuak gure testuinguruan izandako oihartzunaren ibilbideaz errepaso laburra egingo da. Horri egungo (hizkuntz) errealitateak egindako irakurketa gehituko zaio, kontzeptuari ikuspegi kritikoa gehitzeko asmoz.

Kritika horren abiapuntuan, hizkuntz antropologiak hizkuntza bera ulertzeko/interpretatzeko planteatzen dituen aukerak kontuan hartuko dira. Diziplina honek dioen moduan, hizkuntzak errealitatean eragiteko gaitasuna du, baina, aldi berean, hizkuntza errealitatearen isla ere bada. Hortik abiatuta, transmisioa ulertzeko egon daitezkeen aukera ezberdinak planteatuko dira, bakoitzak eduki ditzakeen ondorioetan erreparatuz.